AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
*BERRIOZARko UDALA*

**CONVOCATORIA REGULADORA DE LAS AYUDAS PARA ASISTIR A ACTIVIDADES EN EL ÁMBITO DE LAS ÁREAS DE CULTURA, DEPORTE, ACCION SOCIAL E IGUALDAD PARA EL AÑO 2025 (curso 2025/2026) EN BERRIOZAR.**

**1. FUNDAMENTO**

Dentro del perfil socioeconómico de la población de Berriozar nos encontramos con un importante número de familias que no pueden, por falta de medios, optar a las actividades organizadas por el Ayuntamiento y la empresa pública Berrikilan.

Las Administraciones Públicas no pueden, bajo ningún concepto, permitir que se produzcan desigualdades entre la población en el acceso a los bienes y servicios públicos.

Mediante ésta convocatoria se pretende facilitar a las personas de menores recursos la posibilidad de acceder a las actividades municipales en condiciones de igualdad respecto al resto de la ciudadanía.

**2. OBJETO**

El objeto es establecer el régimen de concesión de ayudas con el fin de posibilitar el acceso en condiciones de igualdad a los servicios que organiza el Ayuntamiento y la empresa pública Berrikilan en el ámbito de las áreas de Deporte, Cultura, Igualdad y Actividades personas Mayores.

**3. <u>CRITERIOS</u>**

- Dirigido exclusivamente para personas empadronadas en Berriozar y que estén inscritas en alguna de las actividades objeto de subvención (mínimo desde el 1 de enero del año en curso).

- Se subvencionará la inscripción a cursos

**KULTURA, KIROL, GIZARTE EKINTZAKO ETA BERDINTASUN ARLOEK BERRIOZARREN ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO 2025eko DIRULAGUNTZEN DEIALDI ARAUTZAILEA (2025/26 IKASTURTEA).**

**1. <u>OINARRIA:</u>**

Berriozarko egoera sozioekonomikoa kontuan izanik, hainbat familiak ez dute baliabide nahikorik Udalak eta Berrikilan enpresa publikoak antolatzen dituzten jarduerak ordaintzeko.

Administrazio Publikoek ezin dute onartu, inolaz ere, herritarren arteko desberdintasunik ondasun eta zerbitzu publikoei heltzerakoan.

Hortaz, deialdi honen helburua da baliabide gutxiagoko pertsonak laguntzea, udal jardueretan parte har dezaten gainerako herrikideen baldintza berberetan.

**2. <u>XEDEA:</u>**

Helburua da dirulaguntzak emateko araudia finkatzea, pertsonek aukera izan dezaten Kirol, Kultura, Berdintasun eta Adinekoen arloetan Udalak eta Berrikilan enpresa publikoak antolatzen dituzten zerbitzuei berdintasunezko baldintzetan heltzeko.

**3. <u>IRIZPIDEAK:</u>**

- Berriozarren erroldatuek eta jardueretan izena emanda daudenek soilik egin ahalko dute eskaera (gutxienez, aurtengo urtarrilaren 1etik hona erroldatuak).

- Dirulaguntzak banatuko dira

y/o matrícula en actividades municipales organizadas por las diferentes comisiones del Ayuntamiento de Berriozar, por entidades subvencionadas o con convenio con dicho Ayuntamiento (de carácter deportivo, cultural, temas sociales y de igualdad).

- Sólo se concederá una petición de una actividad por persona.

- El criterio máximo de subvención es el 50% de la matrícula de la actividad (según cursos), no pudiendo superar el coste de 75€ por persona y año, en actividades organizadas por el Ayuntamiento y por Berrikilan.

- Estarán excluidas de estas ayudas económicas: actividades organizadas por otras entidades fuera de la localidad de Berriozar.

- Se podrán atender excepcionalmente casos donde el criterio del 50 % podrá ser ampliado previo informe Técnico del Servicio Social de Base, cuyo razonamiento sea que la inscripción a las actividades pueda generar un cambio de la situación de la familia que facilite un proceso de incorporación social.

**4. METODOLOGÍA**

**PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.**

Las personas interesadas presentarán su solicitud y los documentos que se relacionan, en el Ayuntamiento de Berriozar (Plaza Euskal Herria, 1) o en el Registro Electrónico (https://sedeelectronica.berriozar.es/registro-electronico/), entre los días 1 y 31 de octubre de 2025.

El Ayuntamiento puede requerir que en un plazo máximo de 10 días se subsanen los defectos o requisitos no justificados que de la solicitud presentada se puedan desprender. Transcurrido dicho plazo sin atender correctamente el requerimiento se desestimará la solicitud correspondiente.

El plazo de presentación de solicitudes será improrrogable.

**4.1. <u>Documentación necesaria para</u>**

honako entitate hauek antolatutako ikastaroetan izena emateko edo/eta jardueretan matrikulatzeko: Berriozarko Udaleko batzordeak, Udalak diruz lagundutako erakundeak edo Udalarekin hitzarmena sinatutako erakundeak (beti ere gai hauetakoak badira: kirola, kultura, gizartea eta berdintasuna).

- Pertsona bakoitzari jarduera bakarraren gaineko laguntza emanen zaio.

- Udalak eta Berrikilanek antolatutako jardueren dirulaguntza ez da izanen matrikularen %50 baino gehiago, ezta 75 eurokoa baino handiagoa ere, urteko eta pertsonako.

- Dirulaguntza hauetatik kanpo daude Berrikilanek edo gainerako entitateak antolatutako jarduerak.

- Salbuespenez, dirulaguntza %50 baino handiagoa izan ahalko da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko teknikariaren txostena aldekoa bada. Salbuespena gertatuko da jardueretan izena ematea familia gizarteratzeko prozesua errazteko faktorea bada.

**4. <u>METODOLOGIA:</u>**

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA.**

Interesdunek eskabidea eta aipatzen diren gainerako agiriak Berriozarko Udaletxean aurkeztuko dituzte (Euskal Herria plaza 1) edo Erregistro Elektronikoan (https://sedeelectronica.berriozar.es/eu/registro-electronico/). 2025e-ko Urriaren 1etik hasita eta urriaren 31ra bitartekoa izango da epea.

10 eguneko gehienezko epean, Udalak eskarian justifikatu ez diren baldintzak edo akatsak zuzentzeko eskaera egin dezake. Epe hori igarota errekerimenduari ez bazaio erantzun, dagokion eskaria atzera botako da.

Eskaerak aurkezteko epea luzaezina izango da.

**4.1. <u>Dirulaguntza eskatzeko beharrezko</u>**

**realizar la solicitud de subvención:**

1. Instancia cumplimentada que se adjunta al final de esta convocatoria.

2. Declaración de la renta de este año de la unidad familiar. En caso de custodia compartida las y los menores será necesario presentar la declaración de la renta de ambas personas progenitoras o tutoras. En este caso, a efectos del cómputo de ingresos anuales, se tendrán en cuenta los ingresos de ambas declaraciones de la renta.

   Si la situación económica en el momento de la solicitud ha variado respecto a la Declaración de la Renta del año anterior (superando el baremo económico), se puede añadir la documentación que justifique dicho cambio: Informe del Servicio Social de Base.

3. En el caso que corresponda, certificado de familia monoparental, demanda de separación o sentencia firme de divorcio o justificante del inicio del trámite y, en su caso, convenio regulador o justificante de inicio del trámite. Acuerdo de plan de parentalidad en el caso de tener la custodia del o la menor.

4. Igualmente, el Ayuntamiento podrá requerir a la persona solicitante cualquier otro tipo de documentación complementaria que sea necesaria para acreditar los requisitos exigidos en la convocatoria.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento a fecha de la solicitud de la ayuda. También se comprobará de oficio en la fecha antes mencionada la situación de la deuda y las obligaciones con el Ayuntamiento, la Empresa Pública Berrikilan y la entidad organizadora de la actividad.

**4.2. Características generales:**

- Para optar a la subvención, es obligatorio haber abonado la primera parte del pago del coste de la actividad, 50%, (siempre previo a la concesión de la ayuda económica). Las actividades se cobran en dos recibos. En el segundo plazo se restará la ayuda correspondiente.

- El área que gestiona las solicitudes comunicará a la persona beneficiaria o en

**agiriak:**

1. Deialdi honen bukaeran erantsitako eskabide betea.

2. Familia-unitatearen aurtengo errenta-aitorpena. Zaintza partekatuaren kasuan, adingabeek bi guraso edo tutoreen errenta-aitorpena aurkeztu beharko dute. Kasu horretan, urteko diru-sarrerak zenbatzeko, bi errenta-aitorpenen diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

3. Uneko egoera ekonomikoa aldatu bada aurreko urteko Errenta Aitorpena egin zenetik (baremo ekonomikoa gainditu delako), aldaketaren berri ematen duten agiriak ere aurkez daitezke: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren txostena.

4. Hala badagokio, guraso bakarreko familiaren ziurtagiria, banantze-demanda edo dibortzio-epai irmoa, edo izapidearen hasieraren egiaztagiria eta, hala badagokio, hitzarmen arautzailea edo izapidearen hasieraren egiaztagiria. Gurasotasun-planaren akordioa, adingabearen zaintza izanez gero.

5. Era berean, deialdian eskatutako baldintzak egiaztatzeko beharrezkoa den beste edozein agiri osagarri eskatu ahal izango dio Udalak eskatzaileari.

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatuta dagoela laguntza eskatzen den egunean. Halaber, ofizioz egiaztatuko da lehen aipatutako datan zorraren egoera eta Udalarekiko, Berrikilan enpresa publikoarekiko eta jarduera antolatzen duen erakundearekiko betebeharrak.

**4.2. Ezaugarri nagusiak:**

- Dirulaguntza eskuratzeko, jardueraren kostuaren lehen zatia ordainduta eduki beharko da, %50 (beti dirulaguntza eman aurretik). Jarduerak bi ordainagiritan kobratzen dira. Bigarren epean, dagokion laguntza kenduko da.
- Dirulaguntzaren ebazpena eskaera

su caso a su representante la resolución de la subvención.

- Las becas cuentan con una consignación anual de 2.500 euros (aplicación presupuestaria 1 23180 4800000 – AYUDAS TASAS CURSOS MUNICIPALES, 2.500,00 euros). La aprobación estará condicionada a la existencia de consignación presupuestaria suficiente en el presupuesto de 2025.

- En el supuesto de que importe total de las ayudas supere la consignación económica reservada para la convocatoria en los presupuestos municipales, se procederá al prorrateo entre las personas beneficiarias de la convocatoria que cumplan los requisitos establecidos.

- En ningún caso, se concederá este tipo de ayudas económicas cuando la unidad familiar no esté al corriente de pagos con respecto al Ayuntamiento de Berriozar, Berrikilan y la entidad organizadora de la actividad.

- Las actividades que cuentan con inscripción mediante la renta, no tendrán derecho a ayudas.

-

**5. ACTIVIDADES POR LAS CUALES SE PUEDE PEDIR SUBVENCIÓN:**

**5.1. DEPORTIVAS**

- CLUBES DEPORTIVO: ajedrez, atletismo, baloncesto, cestapunta, deporte rural, escalada, fútbol, futbol sala, gimnasia rítmica, judo, montaña, multideporte, patinaje voleyball, natación competición, taekwondo competición y karate competición.

- BERRIKILAN (cursos deportivos): pelota mano, taewkondo, karate y natación sincronizada y abono deporte (sólo actividades).

**5.2. CULTURALES**

- Cursos organizados por el área que se detallan en el folleto de actividades 2025-2026.

kudeatu duen arloak jakinaraziko dio eskatzaile edo errepresentante bakoitzari.

- Bekak emateko urteko kontu-saila 2.500 eurokoa da (1 23180 4800000 kontu-saila, AYUDAS TASAS CURSOS MUNICIPALES, 2.500,00 euro). Onartzeko baldintza izanen da 2025eko aurrekontuan diru nahikoa izatea.
- Laguntzen zenbateko osoak udal-aurrekontuetan deialdirako gordetako diru-kopurua gainditzen badu, ezarritako baldintzak betetzen dituzten onuradunen artean hainbanatuko da laguntza.
- Ez dute sekula dirulaguntzarik jasoko Berriozarko Udalari, Berrikilani eta entitate antolatzaileekin, ordainketaren bat zor dieten familia-unitateak.
- Errentaren araberako izen-ematea duten jarduerek ez dute dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik.

**5. DIRUZ LAGUNDU AHALKO DIREN JARDUERAK:**

**5.1 KIROLA:**

- KIROL TALDEAK: xakea, atletismoa, saskibaloia, zesta-punta, herri kirolak, eskalada, futbola, futbol aretoa, gimnasia erritmikoa, judoa, mendia, askotako kirol jarduera, patinajea, boleibola, lehiaketako igeriketa, lehiaketako taekwondo eta lehiaketako karate.
- BERRIKILAN: kirol ikastaroak: Esku pilota, taewkondo, karate eta igeriketa sinkronizatua eta kirol abonamendua (jarduerak soilik).

**5.2 KULTURA:**

- Arloak antolatutako ikastaroak, 2025-2026 aldirako jardueren liburuxkan zehazten direnak.

**5.3. IGUALDAD**

- Cursos organizados por el área que se detallan en el folleto de actividades 2025-2026.

**5.3 BERDINTASUNA:**

- Arloak antolatutako ikastaroak, 2025-2026 aldirako jardueren liburuxkan zehazten direnak.

**6. BAREMO ECONÓMICO**

Contar con unos rendimientos anuales de la unidad familiar por todos los conceptos inferiores a los establecidos en la siguiente tabla (Declaración de la Renta ejercicio 2024: Declaración que se presenta en la Campaña del 2025):

**6. BAREMO EKONOMIKOA:**

Ondorengo taulan jarritako kopuruak baino txikiagoak izatea familia unitatearen urteko etekinak, kontzeptu guztiak barne (2024ko ekitaldiko Errenta Aitorpena: 2025eko kanpainan aurkezten den aitorpena).

| N.º PERSONAS MIEMBROS DE LA UNIDAD FAMILIAR / FAMILIA UNITATEAREN KIDE KOPURUA | RENDIMIENTOS MÁXIMOS ANUALES / URTEKO GEHIENEZKO ETEKINAK |
|---|---|
| 2 miembros / 2 kide | 19.000 € |
| 3 miembros / 3 kide | 20.100 € |
| 4 miembros / 4 kide | 21.300 € |
| 5 miembros / 5 kide | 22.400 € |
| 6 miembros / 6 kide | 23.500 € |
| 7 miembros / 7 kide | 24.600 € |
| 8 miembros / 8 kide | 25.700 € |

Casilla 507 (Base Imponible) + Casilla 529 (Rentas Exentas) de la declaración de la Renta 2024.

Excepcionalmente y previo informe favorable de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Base, el órgano municipal competente podrá valorar aquellos expedientes que superan los rendimientos máximos fijados en el cuadro precedente siempre y cuando se solicite en la instancia y se acredite el cambio significativo en las condiciones socio-económicas entre la fecha de presentación de la declaración de la renta de 2024 y la fecha de la presentación de la solicitud.

2024ko Errenta Aitorpeneko 507 laukia (Zerga-oinarria) + 529 laukia (Errenta salbuetsiak).

Salbuespenez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen aldeko txostena bada, udaleko organo eskudunak baloratu ahalko ditu goiko taulan jarritako gehienezko etekinak gainditzen dituzten eskaerak. Horretarako eskaera orrian hala eskatu beharko da eta egiaztatu beharko da baldintza sozio-ekonomikoen aldaketa adierazgarria 2024ko Errenta Aitorpena egin zenetik eskaera aurkezten den egunera.

**7. COMISIÓN DE VALORACIÓN PARA LA EVALUACIÓN DE LAS SOLICITUDES**

Se constituirá una comisión de valoración para la evaluación de las solicitudes compuesta por las personas designadas a continuación:

- Presidencia: La persona Presidenta de la Comisión de Cultura.
- Vocal: El personal técnico de Euskera.
- Vocal: El personal técnico de Cultura.

**7. ESKABIDEAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:**

Eskabideak ebaluatzeko balorazio-batzorde bat eratuko da, eta honako hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Kulturako Informazio Batzordeko lehendakaria.
- Kidea: Euskara teknikaria.
- Kidea: Kultura teknikaria.

| | |
|---|---|
| - Vocal: El personal técnico de Igualdad.<br><br>- Vocal-Secretario: El personal técnico de Deporte. | - Kidea: Berdintasun teknikaria.<br><br>- Batzordekide-idazkaria:Kirol teknikaria. |
| **8. <u>INFORMACIÓN DE PROTECCIÓN DE DATOS:</u>**<br><br>Responsable: Ayuntamiento de Berriozar. Finalidad: Gestionar las ayudas y subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento. Derechos: Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional. Información adicional: La información adicional y detallada sobre los tratamientos de datos y Delegada de Protección de Datos está disponible en el apartado de Política de Privacidad de la Web municipal www.berriozar.es y dpd@berriozar.es.<br><br>Berriozar, a fecha de firma digital | **8. <u>DATUEN BABESERAKO OINARRIZKO INFORMAZIOA</u>:**<br><br>Arduraduna: Berriozarko Udala. Xedea: Udalak emandako dirulaguntzak kudeatzea. Eskubideak: datuak atzitu, zuzendu edo kentzeko eskubidea, baita informazio osagarrian azaldutako beste eskubide batzuk ere. Informazio osagarria: datuen tratamenduen gaineko informazio osagarria eta zehatza eta Datuen Babeserako Ordezkaria www.berriozar.es eta dpd@berriozar.es guneko pribatutasun-politika atalean aurkitu daiteke.<br><br>Berriozar, sinadura digitalaren datan. |

Alcalde/Alkatea
Iker Mariezcurrena Celaya.

AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
*BERRIOZARko UDALA*

# GIZARTE ETA KULTUR JARDUERETAN PARTE-HARTZEKO LAGUNTZA ESKAERA

# SOLICITUD DE AYUDAS PARA ASISTIR A ACTIVIDADES SOCIO-CULTURALES

| **IZENA EMANDAKO PERTSONAREN DATUAK**<br>**DATOS DE LA PERSONA INSCRITA** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| NAN/AIZ/Pasaportea / DNI/NIE/Pasaporte | | Jaiotze data / Fecha de nac. | | |
| Izena / Nombre | 1.Abizena / Apellido 1 | 2. Abizena / Apellido 2 | | |
| Kalea, Etorbidea, Plaza / Calle, Avenida, Plaza | | Zenbakia / Número | Pisua / Piso | Atea / Puerta |
| P.K / C.P. | Herria / Población | | | |
| Telefonoa / Teléfono | e-maila / e-mail | | | |

---

**IZENA EMANDAKO PERTSONA, ADINGABEA DENENAN / CUANDO LA PERSONA INSCRITA SEA MENOR DE EDAD**

| **1. ZENBAKIKO LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK**<br>**DATOS DEL/LA REPRESENTANTE LEGAL N.º 1** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| NAN/AIZ/Pasaportea / DNI/NIE/Pasaporte | | Jaiotze data / Fecha de nac. | | |
| Izena / Nombre | 1.Abizena / Apellido 1 | Apellido 2 | | |
| Kalea, Etorbidea, Plaza / Calle, Avenida, Plaza | | Zenbakia / Número | Piso | Puerta |
| P.K / C.P. | Herria / Población | | | |
| Telefonoa / Teléfono | e-maila / e-mail | | | |

| **LEGEZKO 2. ORDEZKARIAREN DATUAK**<br>**DATOS DEL/LA REPRESENTANTE LEGAL N.º 2** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| NAN/AIZ/Pasaportea / DNI/NIE/Pasaporte | | Jaiotze data / Fecha de nac. | | |
| Izena / Nombre | 1.Abizena / Apellido 1 | Apellido 2 | | |
| Kalea, Etorbidea, Plaza / Calle, Avenida, Plaza | | Zenbakia / Número | Piso | Puerta |
| P.K / C.P. | Herria / Población | | | |
| Telefonoa / Teléfono | e-maila / e-mail | | | |

Bananduz gero, zehaztu zaintza mota: En caso de separación, especificar tipo de custodia:

- ☐ **Zaintza partekatua Custodia compartida**
- ☐ **Guraso bakarreko zaintza Custodia monoparental**

* Bi kasuetan, beharrezkoa izango da zaintza-akordioa aurkeztea, eta, zaintza partekatuaren kasuan, beharrezkoa izango da bi pertsonen errenta-aitorpena aurkeztea. En ambos casos será necesario aportar acuerdo de custodia y, en caso de custodia compartida, será necesario la presentación de la declaración de la renta de ambas personas.

| DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO JARDUERA<br>**ACTIVIDAD A SUBVENCIONAR** | |
|---|---|
| Kluba – entitate antolatzailea / Club - entidad organizadora | |
| Jardueraren izena / Nombre de la actividad | Jardueraren kostua / Coste de la actividad |

| | AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA<br>**DOCUMENTACIÓN PRESENTADA** |
|---|---|
| | Familia unitatearen 2024ko PFEZ aitorpena / Declaración IRPF 2024 de la unidad familiar |
| | Ogasunaren ziurtagiria, 2024ko errenta aitorpena aurkezteko betebeharrik ez dagoela adierazten duena.<br>Certificado de Hacienda en el que se indica la no obligación de presentar la Declaración de la renta de 2024. |
| | Gizarte Zerbitzuetako txostena / Informe de Servicios Sociales |
| | Guraso bakarreko familiaren ziurtagiria, banantze-demanda edo dibortzio-epai irmoa, edo izapidearen hasieraren egiaztagiria eta, hala badagokio, hitzarmen arautzailea edo izapidearen hasieraren egiaztagiria.<br>Certificado de familia monoparental, demanda de separación o sentencia firme de divorcio o justificante del inicio del trámite y, en su caso, convenio regulador o justificante de inicio del trámite. |

☐ Aitortzen dut egiazkoak direla aurkeztutako datu eta dokumentu guztiak / Declaro que son ciertos todos los datos y documentos aportados.

Berriozarren, 2025eko…………………………………………… / En Berriozar a …………. de ………………………… de 2025.

Firma / Sinadura

Información Básica Protección de Datos. Responsable: Ayuntamiento de Berriozar. Finalidad: tramitación de las ayudas. Derechos: acceso, rectificación y supresión. Más información en Política de Privacidad Web, portal de transparencia y dpd@berriozar.es

Datuen Babesari Buruzko Oinarrizko Argibideak. Arduraduna: Berriozarko Udala. Xedea: dirulaguntzak bideratzea. Eskubideak: sarbidea, zuzenketa, ezabaketa. Informazio gehiago pribatutasun politikari buruzko webguneko atalean, gardentasun atarian eta dpd@berriozar.es